

2016KO MARTXOAK 8. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Feminismoa ez da matxismoaren kontrakoa, ezberdintasunaren antidoto onena baizik. Orain inoiz baino beharrezkoagoa!

Martxoaren 8a urtetik urte oroitzen dugun eguna dugu, emakume guztiendako eskubide guztien aldarrikapen feministaren eta erresistentzia historikoaren inguruan kokaturik. Ukaezinak dira emakumeek eskuratu dituzten lorpenak. Emakumeak gero eta prestatuago daude, gero eta alor gehiagotan, askatasun gehiagorekin, gero eta ahaldunduago daude eta gero eta gehiago dira dagokien eremu soziala aldarrikatzen dutenak.

Emakumeak berdintasunaren eta ahalduntzearen bidean egindako aurrerapenei aurre egin nahian, matxismoaren berrarmatze ideologikoak erantzuten die, azken urteotan ikusten ari garen bezala. Neomatxismo izenpean hainbat diskurtso matxisten indartzea dago. Hauek genero desberdintasunak eta emakume nola sexualitate ez-normatiboen kontrako indarkeria esplizituki nahiz ezkutuki erlatibizatzen eta babesten dute.

Emakumeen kontrako indarkeria darabilte politika arrazista eta islamofoboak sustatzeko,

emakumeen eskubideen defentsaren itxurapean. Horren erakusle argia da gabon zaharrean Alemaniako hainbat hiritan izandako eraso sexisten ondoren gertatu dena.

Beste alde batetik, egun berdintasunaren irudikerian bizi gara. Hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu izanaren sentsazio orokortua dago. Baina uste oker horrek ez du inolaz ere errealtatea erakusten. Izan ere, soldata-arrailak argi adierazten du emakumeek bataz beste %27 gutxiago irabazten dutela.

Kristalezko sabaia mantentzen da, emakumeak dira oraindik ere etxekolanez nagusiki arduratzen direnak baita zaintza-lanez ere. Oraindik, bikotekide zein bikotekide ohiek emakumeak erailtzen dituzte.

Indarkeria sexualak jarraitzen du. Tratu txar eta abusu harremanen oinarrian oraindik dago maitasun erromantikoaren ideala. Eta azken hau, neurri handiagoan ematen da gazteen artean.

Feminismoak defendatzen du emakumeek gizonak dituzten eskubide berak izan behar dituztela. Hori dela eta, instituzioetatik mugimendu feministen lana eta ahalegina aitortu nahi dugu.

Matxismoa lausoagoa eta detektatzen zailagoa da egun eta, horregatik, feminismoa inoiz baino beharrezkoagoa da. Horixe baita emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzeko bide bakarra. Baita pertsona guztiak eskubide, betebeharrak eta aukera berak izan behar dituzten jendarteak eraikitzeko bidea.

Emakumeen Nazioarteko Egunak ospakizun/oroitzapen data izan behar du, genealogiak aitortzeko baita aldarrikapenatarako eguna ere, gure gizarte patriarkalak emakumeak diskriminatzen eta ikustezin bihurtzen baititu, eta beraien kontra indarkeriaz dihardu.

Hori dela eta, emakume baten erdua aitortu nahi dugu, Wangari Maathairena. Bakearen Nobel Saria jaso zuen 2004an eta bere hitzak gogora ekarri nahi ditugu: "Zerbait lortu duten pertsona guztiak lurtean izan dira behin baino gehiagotan. Eta beti altxatu egin dira. Horixe da betidanik egiten saiatu naizena."

Manifestua aztertuta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

6.1.- Tokian tokiko ikuspegitik lanean jarraitzea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

6.2.- Mugimendu feministari sostengua eta babesa ematea bere eskaera eta borroketan.

6.3. -Berdintasun printzipioa bermatu politika publiko guztietan.